



**Banda zabal ultra-azkarrera sarbidea izango duen MPN 5G sare mugikor pribatua
hedatuko duen Vodafonekin lankidetzan**

Eusko Jaurlaritzak Estatuko Parke Teknologiko bateko lehen MPN 5G sarea instalatu du Gasteizko Campusean

- Operadorearen 5G sare pribatuaren hedapenak, IoT, robotika eta IA (Adimen Artifiziala) erabilera industrialeko kasuak izango dituen aparteko ingurunearen garapena erraztuko du, teknologia horrek eskaintzen dituen prestazio guztiak aprobetxatzeko.
- Eragiketa 5G teknologia sustatzeko 2,5 milioi euroko inbertsioa aurreikusten duen Eusko Jaurlaritzaren Inbertsio Estrategikoen Planaren barruan dago.
- Euskadiko Parke Teknologikoaren Vitoria-Gasteizko Campusa “Living Lab 5G” bihurtuko da, teknologia horren garapena, datozen urteetako ekonomia eta gizarte digitala eraikitzeke tresna gisa sustatzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko irailaren 29an.- Eusko Jaurlaritzak gaur aurkeztu du EAEko ekonomiak datozen urteetan izango duen garapena markatuko duen “datuaren balio-katearen” lehen maila. **MPN 5G Sare Mugikor Pribatua** instalatuko da Euskadiko Parke Teknologikoko Vitoria-Gasteizko Campusean. Sarea zerbitzu hori eskainiko duen eta enpresetako profesionaleri eta bisitariei banda zabal ultra-azkarreko sarbidea eskainiko dien lehena da estatuan.

Ekimena Daturako Azpiegiturak (5G) garatzeko 2,5 milioi euroko inbertsioa aurreikusten duen **Eusko Jaurlaritzaren 2022-2024 Inbertsio Estrategikoen Planaren** barruan dago. Zehatzago, industria-sektorean arreta berezia jartzen duen industria adimendunaren garapenaren aldeko apustuaren parte da –RIS3 estrategiaren eta ZTBP 2030aren barruan–. Era berean, Euskadiko Parke Teknologikoak bere Campusak abangoardiako azpiegitura adimendun bihurtzeko duen estrategiari ere erantzuten dio.

Vodafonek instalatu du sarea, eta haren MPN sareak bermatzen du 5G sare mugikor pribatuen ahalmen guztiak industria-ingurune bakar batean aplikatzea, teknologia berriak

bultzatzeko eskaintzen dituzten gaitasunak ahalik eta gehien aprobetxatuz, hala nola adimen artifiziala (IA), gauzen internet (IoT ingelesezko sigletan) eta robotika, industria-prozesuei aplikatuta.

5Garen Living Lab

MPN 5G sarearen aurkezpena gaur goizean egin da Euskadiko Parke Teknologikoko Gasteizko Campusean bertan, **Estibaliz Hernaez, Eusko Jaurlaritzako Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordea** izan den informazio-jardunaldiaren barruan. Bere irekiera-hitzaldian, Hernaezek ziurtatu du sarea martxan jartzearekin “hurrengo urteetako ekonomia eta gizarte digitala eraikitzekeko urrats erabakigarria eman dela”, eta adierazi du “Vitoria-Gasteizko Campusa egokia dela 5Gko laborategi gisa, onura jasoko duten industria, energia eta teknologia arloetako enpresen kontzentrazioa eta digitalizazioan, IoT industrialean eta 5G esperimenduetan espezializatutako ETEen eta eragileen presentzia direla eta”.

Era berean, Euskadiko Parke Teknologikoko presidente gisa duen ikuspegitik, Estibaliz Hernaez pozik agertu da ekimen horrekin. Izan ere, “Parke Smart-aren alde egiten dugun apustua gauzatzen laguntzen du. Beren enpresa-proiektuei forma emateko behar duten guztia aurkituko duten enpresa eta profesionalentzako abangoardiako lekua da. Digitalizazio adimendunaz gain, eskura dituzte Parkeak hainbat esparrutan eskaintzen dizkien zerbitzu bereizgarri guztiak, azpiegituretik hasi eta networkingera edo profesionalen bizitza-ekosistemara arte”.

Fran Vallejos, Vodafonek Euskadin duen lurralde-zuzendariak, nabarmendu duenez “proiektu horrek jarraipena ematen dio Vodafonek sare mugikor pribatuen teknologia sustatzeko egindako lanari, eta eragin erabakigarria izango du digitalizatzeko ahalmen handia duten hainbat sektoretan, beste patente teknologiko batzuen garapenarekin batera, hala nola Big Data, adimen artifiziala (IA) edo gauzen internet (IoT). Berrito ere, agerian geratzen da Vodafonek, haren laguntzaileen eta Malagako hubean dagoen haren ikerketa-taldearen bultzada, prozesuen kudeaketa adimenduna errazten duten soluzio digital berritzaileenak garatzeko, negozioei eta pertsoneri aplikatuta, haien egunerokotasuna errazteko”.

Proiektu berritzailea

Aurkezpen instituzionalaren ondoren, jardunaldian Sare Mugikor Pribatuei (MPN) eta Vitoria-Gasteizko Campusean ezarritako soluzioari buruzko informazio-txostena aurkeztu da. Hitzaldia Ainhoa Pérez Vodafone Norteko IoT arduradunak eman du. Ondoren, Basque CCAMen eta Inzu Groupen arrakasta-kasuak aurkeztu dira, eta enpresetan MPNren erabilerari buruzko mahai-inguru batekin amaitu da. Bertan, bi enpresa horiekin eta Vodafonekin batera, Eurocybarrek parte hartu du. Miren Bilbao Euskadiko Parke Teknologikoko Arabako gerenteak moderatu du mahai-ingurua.

Jardunaldian nabarmendu den bezala, sare mugikor pribatu (MPN) horiek ematen dituzten onura nagusien artean, nabarmentzekoa da zerbitzu-mailen bermea, abiadura handiekin eta latentzia txikiarekin, etenik gabe eta modu ultrafidagarrian, sarbide eksklusibo eta

kontrolatuen bidez segurtasun-maila handiei eutsiz. Era berean, autokudeaketa eta sare-dentsitatearen bermea ziurtatzen dute, eta, horri esker, produkzio-planta batean dauden milaka gailu konektatu daitezke, zerbitzuan inolako murrizketarik eragin gabe, eta industria-inguruneen barruan funtsezko soluzio bihurtzen dira.

Proiektua 12 astetan garatu da, eta telekomunikazio-konpainiako hornitzaile eta bazkide askoren lankidetzak eskatu du, hainbat frontetan aitzindaria izanik. Lehenik eta behin, Athonetan (MPN soluzioetarako operadorearen ohiko hornitzailea) 5G Stand Alone nukleoa duen lehen MPN merkataritza-hedapena delako. Bigarrenik, sarbide irrati-elektriko publikoko sarearekin (RAN) koordinatuta sare zentral multioperatzailearen (MOCN) ahalmenak baliatzen dituen lehen sare mugikor pribatua delako. Eta, batez ere, Vodafonek Malagan sortu duen MPN Domain Assurance taldeak kudeatzen duen lehen sare mugikor pribatua delako.

Teknologia horrek gero eta garrantzi handiagoa duela erakusteko, eta Economist Impact erakundeak egindako eta NTTrekin lankidetzan argitaratutako txosten baten datuei jarraituz, nabarmendu behar da erakundeen % 24 inguru dagoeneko Internet pribatua probatzen ari dela, eta erdiek baino gehiagok 5G sare pribatua hedatzeko planak dituztela. Zifra horiek sare horien hazkunde esponentzialaz ez ezik, merkatuari ekar diezaioketen interesa eta funtzionalitateak ere erakusten dituzte.

Euskadiko Parke Teknologikoa

Euskadiko Parke Teknologikoa Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren euskal ekosistemaren funtsezko eragilea da. Abangoardiako lekua da, azpiegitura berde eta adimendunak ditu, eta proiektu estrategikoak eta herrialde mailakoak erakartzeko gai da. Oraina hobetu eta etorkizuna sortzen den gizarte-garapenerako eta ongizate komunaren hobekuntzarako aktiboa da.

Euskadiko Parke Teknologikoak 9 campus ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, 6 aktibo (Zamudio-Derio, Leioa, Abanto, Vitoria-Gasteiz, Donostia eta Hernani) eta 3 proiektuan (Bilbo, Ortuella eta Hondarribia). 647 enpresa daude gaur egun bere campusetan; urtean 6.480 milioi euro fakturatzen dituzte, 588 milioi euro bideratzen dituzte I+G+Bko gastura, eta 21.750 pertsonak egiten dute lan horietan, gehienak kualifikazio handiko lanpostuetan. Bere jarduera EAEko BPGren % 7a da.

Informazio gehiago www.parke.eus webgunean eta gure sare sozialetan: twitter (@ParkeEuskadi), Facebook (ParkeEuskadi), instagram (parkeeeuskadi) eta linkedIn (parkeeeuskadi)

Vodafone

Vodafone telekomunikazio-enpresa paneuropar eta afrikar handiena da. Gure asmoa etorkizun hobearen alde konektatzea da, bizitza hobetzeko teknologia erabiliz, sektore kritikoak digitalizatuz eta gizarte digital inklusiboak eta jasangarriak posible eginez.

Vodafonek zerbitzu mugikor eta finkoak eskaintzen dizkie 300 milioi bezero baino gehiagori 17 herrialdetan, eta beste 46 herrialdetan ditu hitzarmenak sare mugikorrekin. Vodafone munduko liderra da Gauzen Interneten (IoT), 167 milioi gailu eta plataforma baino gehiago konektatuz. Vodacom Financial Services eta M-Pesarekin, Afrikako finantza-teknologiako plataformarik handiena dugu, sei herrialdetan 71 milioi pertsonari baino gehiagori zerbitzua emanez.

Gure ingurumen-inpaktua murrizteko konpromisoa hartu dugu, 2040an zero emisio garbi lortzeko, eta, aldi berean, 2030erako beren karbono-emisioak 350 milioi tona murrizten laguntzen diegu gure bezeroei. Gailuen hondakinak murrizteko eta 2025erako sareko ekipoen hondakinen % 100 berrerabili, birsaldtu edo birziklatzeko gure helburua lortzeko ekintzak bultzatzen ari gara.

Informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu: www.vodafone.com, jarraitu Twitterren @VodafoneGroup-en edo LinkedIn-en